



Arartekoaren 2021R-1089-21 Ebazpena, 2021eko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari gomendatzen zaio berrikerik dezala guraso bakarra duten familien tratamendua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako zerbitzuak ematen dituzten langileen gurasotasun-baimenei dagokienez.

Aurrekariak

1. Elkarre batek kexa bat egin zion Arartekoari, euskal administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen eremuan guraso bakarreko familiei onartutako jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adopziorako edo harrerarako zaintzagatiko baimenei buruz.

Adierazi zuenez, gaia behin-behinean araututa zegoen Gobernu Kontseiluaren 2019ko irailaren 17ko Erabakiaren bidez¹. Erabaki horrek Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren proposamena onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkaturako langileen kontziliazio-baimenak parekatzeko.

Testu horren zioen azalpenean, onartutako proposamena behin-behinekoa zela aipatzen zen, eta dekretu bidez arautuko zela iragartzen zen, betiere beste gai batzuk jorratzeko erabilitako prozedurari jarraituz.

Hala, 2019ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak izanik, baimen horien iraupena 18 astekoa izan zen, bai ama biologikoaren kasuan, bai beste gurasoarenean, eta zenbait kasutan luzatu ahal izan zen (seme-alaba bat baino gehiago edo desgaitasun kasuak).

Erabakian ez zegoen jasota guraso bakarra duten familien egoera espezifikoak. Hortaz, gaur egun, arau horretan xedaturakoari jarraituz, 18 asteko baimena baino ezin dute eskatu.

Kexa aurkeztu zuen elkarreak azpimarratzen zuen, ordea, inguruabar hori Eusko Jaurlaritzaren beraren beste arau batean jasota zegoela. Zehazki, 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, eremu pribatuan soilik aplikatzekoa.

Hala, testu horren 4. artikulua lan-eszedentzian dauden langileei laguntzak ematea dago ezarrita, jaiotzagatik edo urtebetetik beherako pertsona zaintzeagatik gurasoek jasotzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko. Eta laguntzak 16 asteko aldi orokorrera iristen badira ere, eta 17 astera ezintasun bat edo jaiotza edo adopzio bat baino gehiago dagoenean,

¹ *Gobernu Kontseiluaren 2019ko irailaren 17ko Erabakia, kontziliazio-baimenak parekatzea onartzen duena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren irailaren 18ko 78/2019 Ebazpenaren bidez argitaratua.*





dekretuak berriaz zehazten du guraso bakarreko familien kasuan zenbatu beharreko aldia 24 astera iritsiko dela.

Kexa-idazkiak dakarrenez, elkartea ez zegoen ados arauen arteko dibergentzia horrekin, eta, haren ustez, egoera hori bidegabekeria eta desabantaila da administrazio publikoaren eremuan lan egiten dutenentzat.

Hala ere, gaineratu zutenez, desoreka hori konpontzeko bidea aurkitu zuten 2020. urtearen hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura dauden langileen kontziliazio-baimenak parekatzeko dekretu-proiektu bat onartu zenean. Horren arabera, jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adopziorako edo harrerarako zaintzagatiko baimenak 24 astekoak izango lirarteke guraso bakarreko familietan, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Erabaki hori 2020ko urtarrilaren 28ko Gobernu Kontseiluari buruzko prentsa-ohar batean jakinarazi zen, hedabideetan islatu zena, eta oraindik ere Eusko Jaurlaritzaren webgunean kontsulta daitekeena. Oharrak zioenez, *“Neurri hori ere aitzindaria da Euskadin familia-eredu berriekiko dagoen errespetuan eta haiei ematen zaien babesean. Kasu honetan, guraso bakar batez osatutako familiak dira.”*

Dekretu-proiektu hori 2019ko irailaren 17ko Erabakiaren azalpen-zatian deskribatutako behin betiko erregulazio-iragarkiaren ondorio dela uler daiteke, eta Legegunea – Euskal araudiaren atarian dago argitaratuta, DNCG_DEC_4271/19_02 espediente-kodearen pean, eta webgune horrek ez du geroko jarduketarik islatzen.

Kexa aurkeztu duen elkarteak adierazi zuen 2021eko otsailean idazkia bidali ziola Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari, gai horren eta dekretu hori egiteko prozesuaren berri izateko, baina ez zuela berririk jaso.

2. Arartekoak informazioa eskatu zion Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari kexan jasotako inguruabarren eta kontsiderazioen inguruan, aipatutako proiektuaren izapidetze-egoerari buruz eta administrazio horrek arlo horretan jarduteko dituen aukerei buruz.
3. Erantzuna emateko txostenean, jarraian laburbiltzen diren argudioetan oinarritzen zen sail horren jarrera:
 - Oinarrizko araudiak² ordura arte amatasun-, adopzio-, zaintza-, harrera- eta aitatasun-baimenak deitutakoen izena eta erregulazioa aldatu zituen, eta progresiboki handitu zituen 2019tik 2021ean 16 astetan parekatzea lortu arte, eraginpeko familia moten artean bereizketarik egin gabe (ama bakarreko familiak, aita bakarreko familiak, familia ugariak...).

² 6/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratua aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena



- 2019ko irailaren 17ko Akordioaren helburu bakarra kontziliazio-baimenak 2019ko irailaren 1etik aurrera parekatzea zen, hau da, oinarrizko araudiak 2021eko urtarrilaren 1erako ezarrita zuen parekatzea gertatu baino lehen, oinarrizko araudian ezarritako aldi iragankorra amaitzean.

Akordio hori behin-behinekoa izan zen, gerora dekretu bidez arautu arte. 2020ko urtarrilean hasi zen egiten, eta jendaurrean jarri zen. Izapide horretan jasotako ekarpenetako bat baimena guraso bakarreko familien kasuan zabaltzeari buruzkoa zen, eta testuan sartu zen, nahiz eta bere helburua baimenak parekatzea eta kausen arabera ez bereiztea izan.

Ekimen horren izapidetzea atzeratu egin zenez, proiektua bertan behera geratu zen egokitasun prozesaleko arrazoiengatik. Izan ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu izan balitz, ondorioak izango zituen aste gutxi batzuetan.

- Bestalde, urriaren 22ko 164/2019 Dekretua familia eta lana bateragarri egitea sustatzeko neurrien barruan kokatzen da. Neurri horien helburua da, besteak beste, egoera ahulenean dauden kolektiboak babestea (guraso bakarreko familiak, familia ugariak, mendekotasun larria edo mendekotasun handia edo %50etik gorako desgaitasuna duen pertsonaren batekin osaturiko familia-unitateak eta genero-indarkeriaren biktimaren bat duten familia-unitateak).

Diru-laguntzen eremu bat, dekretu horri dagokiona, ezin da konparatu administrazioarentzat zerbitzuak ematen dituzten langileei aitortutako baimenekin, zeren eta diru-laguntzen lerroak gizarte politiken parte baitira, eta baimenak zabaltzeko, berriz, negoziazio kolektiboa behar baita. Hortaz, azken batean, ezin da arauen arteko desadostasunik ikusi, arau bakoitzak erabaki-eremu desberdinei erantzuten dielako.

Gogoetak

1. Arartekoak jakin badaki herri-administrazioetarako zerbitzuak ematen dituzten langileen lan-baldintzak aplikazio orokorreko araudiaren bidez araututa daudela, eta, gainera, negoziazio kolektiboko prozesu baten xede izan behar dutela langileen ordekaritzaren eta administrazioaren beraren artean.

Aitortu behar du, halaber, kexa honetan planteatutako gaia ez dagoela berariaz araututa zuzenean aplikatzekoa den araudi batean. Aitzitik, doktrinari eta jurisprudentziari buruzko eztabaida bizia izaten ari da, aurrerago azalduko dugun bezala.

Neurri horretan, erakunde honek Zuzenbidearen mende jartzearen ikuspegitik aztertu behar ditu administrazio publikoen egintzak. Ikuspegi horretatik begiratuta, pentsa liteke Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren jarrera aplikatu behar den araudiak babesten duela, eta, beraz, ez geundekeela deklaratu behar den irregulartasun nabarmen baten aurrean.





Alabaina, Arartekoak ezinbestekotzat jotzen du sail horri helaraztea jarraian zehazten diren gogoetak eta argudioak, gaiari buruzko azken gomendio bat egitea aholkatzen dutenak, hain zuzen gaiaren funtsa argitzen eta etorkizunean jarduteko irizpideak ezartzen lagunduko dutelakoan, gai horretan biltzen diren eskubide guztien babesarekin bat datozenak.

2. Ebazpen honen aurrekarietan aurreratutako moduan, 2019ko irailaren 17ko Akordioak parekatu egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkaturako langileen kontzilio-baimenak, behin-behinekoak eta 2019ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin. Oro har, 18 asteko iraupena ezarri zuen, eta gaiaren ondorengo behin betiko erregulazioa aurreratu zuen.

Behin betiko erregulaziorako proiektua 2020ko urtarrilean hasi zen, eta, bertan, deskribaturako parekatzeaz gain, baimenak 24 astera luzatzea ere zegoen jasota, guraso bat duten familien kasuan.

2021eko urtarrilaren 1ean, jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimenak 16 astetan parekatzea lortzeko oinarrizko araudian ezarritako epe iragankorra igaro zen, eta artean ez zen dekretu-proiektua onartu. Horrenbestez, dekretu-proiektua xederik gabe utzi zen, gurasoen baimenek parekagarriak izan behar dutela zehazteari dagokionez.

Hala ere, ikus daiteke oinarrizko araudiak agindutako parekatzeak baimenen iraupena 16 astetan kokatzen duela guztira, eta 2019ko irailaren 17ko Akordioak 18 astera igotzen duela epe hori. Ondorioz, 2 asteko luzapena ez litzateke araudi horren parte izango, baizik eta Eusko Jaurlaritzak behin-behineko hartu zuen erabakian oinarrituko litzateke, eta, beraz, alde horretatik, behin betiko erregulaziorako dekretu-proiektuaren alderdi bat da, oinarrizko araudia indarrean sartzearen ondorioz indargabetu ez dena eta behin-behineko arau baten itzalpean jarraitzen duena.

Nolanahi ere, dekretu-proiektuaren izapidetzean atzera egin zuenez, aita bakarreko familien eta ama bakarreko familien egoera izan zen indarreko behin-behineko eta behin betiko arauditik kanpo geratu zena.

Eusko Jaurlaritzak bere txostenean adierazi duenez, arauaren xedea baimenak parekatzea zen, eta ez horiek eragiten dituzten kausen arabera bereiztea. Oinarrizko araudiak ere ez ditu bereziki kontuan hartzen familia motak edo figura horien oinarrian agertzen diren egoerak.

Hala ere, ebazpen honen aurrekarietan aipaturakoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke ondoren onartu ez zen dekretu-proiektuaren asmoa ez zela baimenak beren jatorriarekiko independentea den iraupen bakar batean parekatzea, baizik eta 24 astera luzatzea ere aurreikusten zela kexa eragin zuen kasuan, eta babes berezi eta bereizia ematen zitzaiola.





Izan ere, arestian esan bezala, testuak horri buruzko berariazko xedapen bat edukitzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako prentsa-oharrak berak (hedabideek horren berri eman zuten) ziurtatzen zuen neurri aitzindaria zela familia-eredu berriekiko errespetuan eta babesean, hala nola ama edo aita bakar batek osatutako familia-ereduekiko errespetuan eta babesean.

Bestalde, oinarrizko araudiak guraso bakarreko familiak ez aipatzeak ez du esan nahi administrazio publikoek ezin dutenik egoera hori beren araudian sartu. Izan ere, araudi horrek jasotzen du gero kudeaketa-eremu bakoitzean arreta berezia jaso dezakeen erregulazioaren gutxieneko edukia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gertatzen den bezala baimen asteen zabaltze orokorrarekin (16tik 18ra).

Hortaz, badirudi horrek guztiak agerian uzten duela Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak irizpideren bat aldatu duela behin betiko erregulazioko dekretu-proiektua argitaratu zenetik gaur egun arte, eta hori ez da ageri erantzuna emateko txostenean.

3. Kexan alegatutako aurrekoari dagokionez, administrazioak argudiatzen du urriaren 22ko 164/2019 Dekretua gizarte-politikei dagokien diru-laguntzen araudiaren barruan sartzeko dela, eta, beraz, ezin dela alderatu langileen baimenak arautzen dituen araudiarekin, araudi horrek administrazio-antolaketarekin zerikusia duelako eta, gainera, negoziazio kolektiboko prozesu baten mende egon behar duelako.

Arartekoak uste du araudi desberdinak direla eta bat ez datozen bi eremutan aplikatu behar direla.

Baina, egia esan, egiaztapen horretatik harago, bi erregulazioek elementu berak dituzte: adingabe baten jaiotza, adopzioa edo harrera, eta kasu bakoitzean jarduten duen administrazioak desiragarritzat jotzen duen aldia, gurasoak zaintzan aritzeko lanera joan beharrik gabe.

Hori da diru-laguntzen araudiaren oinarria. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak eremu pribatuko lan-eszedentziak finantzatzeko laguntzak ematen ditu, eta aita bakarreko familiak eta ama bakarreko familiak babesten ditu bereziki, laguntzak 24 astera arte luzatzen baititu. Gainera, administrazio horrek egindako txostenak berak ziurtatzen du lan-eremuan familia eta lana bateragarri egitea sustatu nahi dela, eta bereziki babestu nahi dituela egoera ahulenean dauden kolektiboak, hala nola guraso bakarreko familiak.

Egoera hori bera gertatzen da langile publikoen familia-harremanen eremuan ere, baina kasu honetan, ez da berezitasun hori erregistratzen duen atal bat sortu araudian, eta, beraz, ez dago modu berean babestuta.





Erakunde honen aburuz, eremu pribatuan diru-laguntzen jarduera bat gizarte-politiken barruan sartzeak eta, beste kasuan, negoziazio kolektiboko prozesu baten mendeko lan-baldintzak arautzeak ezin du ahaztu konparatutako kasuen jatorrian dauden elementuen eta beharren erabateko identitate hori.

Hori dela eta, gertaera eragile beraren ondoriozko egoerak direnez, eta langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea eta balizko kalteberatasun baldintzak kontuan hartzea jokoan jartzen direnez, erakunde honek ezin du bat etorri Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere txostenean adierazten duen ondorioarekin, hau da, egoera horien izaera eta ondorioak erabat desberdinak izan daitezkeela.

4. Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ildotik, Arartekoak azpimarratu nahi du gurasotasun-baimenek ez dietela bakarrik eragiten ematen zaizkien pertsonen lan-eskubideei, baizik eta haurraren berezko eskubideei ere eragiten dietela, eta, beraz, baimenok arautzeak eta aplikatzeak ezin dituela alde batera utzi bi alderdi horiek.

Orain dela gutxi erabaki judizialek ikuspegi hori aplikatu dute guraso bakarra duten familien kasua aztertzeko, jaiotzagatiko eta adingabeak zaintzeagatiko baimenei dagokienez. Kontuan hartu behar da oraindik ez direla ebazpen irmoetan oinarritutako jurisprudentzia jarrera, baina erakunde honen ustez garrantzitsua da horiek dokumentu honetan aipatzea, justizia auzitegiak espediente hau eragin duenaren antzeko kasuak erabakitzeko erabiltzen ari diren funtsezko argudioen berri emateko.

Hori da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren 2020ko urriaren 6ko Epaiaren kasua, errekurtsua jarri baitzitzaion Auzitegi Gorenari, eta Auzitegi Gorenak oraindik ez du erabakirik hartu ebazpen hau eman den unean.

Auzitegiaren irizpenerako aurkeztu zuten gaia ez da, berez, jaiotzaren ondoriozko lan-baimena, baizik eta Gizarte Segurantzak ordaindutako prestazio ekonomikoa, eta, beraz, ez da kexa honen esparru berekoa. Hala ere, gure ustez, kontuan hartu behar da kasu honetan ere bat datozela bi egoeren jatorria eta funtsa definitzen dituzten inguruabarrak, eta, neurri horretan, auzitegiaren irizpidea justifikatzen duten gogoetak aplikatu behar direla.

Epaiak adierazten du guraso bakarra zen pertsona batek eskubidea duela beste gurasoarentzat ezarritako jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazio-asteak ere baliatzeko, berdintasun-printzipioaren babesarekin lotutako hainbat arrazoirengatik.

Lehenik eta behin, hauxe dio: prestazio hori ukatzeak urratu egingo lukeela Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutako eta Espainiako Estatuak 1990ean berretsitako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak ezartzen duen berdintasun-eskubidea. Izan ere, kaltetutako





adingabearen arretak, zaintzak eta garapenak murrizketa nabarmena izango lukete antzeko egoeran izanda bi gurasoko familia-eredu batean sartzen direnek jasoko lituzketenen aldean.

Era berean, honako hau gaineratu du: adingabea bere egoeratik edo bere gurasoaren egoera zibil edo egoeratik baztergarria dela abiapuntutzat hartuta, erabaki horrek bi gurasoko familietan emandako arreta gutxitzeaz gain, haurren garapena urratzen duen joera bat sartzen duela, arreta denbora laburragoan eta gurasoaren inplikazio txikiagoarekin jasotzen baitu.

Bestalde, epaiak zenbait iritzi ere aipatzen ditu, eta, haien ustez, Konstituzioaren 14. artikuluko berdintasun-printzipioaren balizko hausturaren ondorioa bermatzen dute, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta familia-bizitza uztartzeko oinarriei dagokienez.

Geroago, beste justizia auzitegi batzuek adierazitakoaren antzeko iritzia eman dute, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ere publiko egin zuen ama biologikoa eta guraso bakarra zen magistratu baten kasuari buruzko akordio bat: organo horrek ondorioztatu zuen amari eman behar zitzaiola ama biologikoa ez den gurasoaren alde legez araututako jaiotzagatiko baimena.

Dokumentu horren oinarrian dauden argudioek zerikusia dute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa zuzenean aplikatzearekin (konbentzio horrek adingabeen diskriminazioa debekatzen du, haien edo haien gurasoen egoera edozein dela ere, eta administrazio publikoek adingabearen interes gorena zaintzeko betebeharra dutela xedatzen du), edo Kode Zibilean ezarritako arauen interpretazio analogikoa erabiltzearekin.

Hala, testuak azaltzen duenez, oro har, araudiak aukera ematen du ama biologikoaren baimena beste gurasoari eskualdatzeko, ama biologikoa hiltzen bada. Eta, hain zuzen ere, adingabearen onura bilatuz egiten du hori, ama biologikoa galtzeak ez dezan mugatu bi gurasoek baimen indibidual bakoitza jarraian hartu izan balute emango zioten guztizko denbora.

Bada, era berean, akordio horren xede den kasuan, adingabearen interes gorenak ezin izango luke eraginik izan, ezta mugarik ere, guraso bakarreko familia bat izateagatik eta legezko guraso bakarra izateagatik. Hortaz, beste gurasoari dagokion baimena ez emateak adingabearen diskriminaziorik ez izateko eskubidea urratuko luke, zeren eta bi gurasorekin familia batean jaio izan balitz izango lukeen zuzeneko arreta eta zaintzarako denbora bera baliatzea eragotziko bailuke.

Antzeko arrazoiak erabili zituen Aragoiko Justiziak 2021eko urtarrilean Aragoiko Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Sailari kasu honetan aztertutakoaren antzeko kexa bat ebazteko igorri zion Gomendioan.



5. Arau-esparruan ere, administrazio publikoek horrelako egoerak babesten dituzten adibideak ageri dira, eta, hala, Kataluniako uztailaren 5eko³ 8/2006 Legearen 13.3 artikulua honako hau ezartzen du: *“El progenitor o progenitora de una familia monoparental, si tiene la guarda legal exclusiva del hijo o hija, también puede disfrutar del permiso de paternidad a continuación del de maternidad.”*
6. Arartekoak behin eta berriz adierazi du azken urteotan (ikus Eusko Legebiltzarrerako urteko txostenak eta *“Euskadiko familiei laguntzeko politikei buruzko ezohiko txostena”*⁴: azterketa eta proposamenak) kezkatuta dagoela euskal familiek zailtasunak dituztelako seme-alabak hazi eta zaintzeko eginkizunak behar bezala betetzeko, eta politika publikoak ahulak direlako zeregin horretan laguntzeko. Familiaren funtzio sozial bakarra ez bada ere, seme-alabak dituzten familien kasuan, ezin dugu ahaztu, aurreko ataletan aipatutako epaitegien erabakiek baieztatzen duten bezala, haurren eskubidea eta haren interes gorena bermatu eta zuzendu behar direla, lehentasunez, hartzen diren eta haiei eragin diezaieketen erabakiak. Bestalde, neurozientziak behar bezala egiaztatzen du hazkuntza-inguruneak haurren garapen fisikoan, psikologikoan eta emozionalean duen eragina eta haren erreferentziazko figurak eta figura lotesleak bizitzako lehen urteetan egotearen garrantzia.

Horregatik, erakunde honek pozik hartu zuen 2018ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta EUDELeK Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna sinatu izana. Itun horrek, jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikiak, seme-alabak izateko nahien eta aukeren arteko desadostasun larria eta kontziliatorako zailtasun larriak ezaugarri dituen testuinguruan, besteak beste, honako konpromiso hau hartzen zuen: *“Gurasoek seme-alabentzako beharrezkoa den bezain besteko astia izatea erraztea, familien premiei aurre egiteko denbora sozialaren antolaketa egokiago bat, eta antolaketa sozial erantzunkidea bultzatzea.”*

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak, bestalde, familiei laguntzeko euskal politikaren funtsezko balioa den aldetik, familia-aniztasuna errespetatzea eta familia mota guztiak berdintasunez tratatzea aldarrikatzen du, baita egoera bereziki ahulean edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden familiekiko elkartasuna ere, guraso bakarreko familiek aipatuta.

Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planak (2018-2022) legeak aldarrikatutako balioak bere egiten ditu eta epe laburrean Itunean ezarritako lehentasun estrategikoak eta konpromisoak hedatzen ditu. Jarduteko printzipio gisa familia-aniztasuna aitortzea eta babestea ematen du, eta gurasoek seme-alabak hazteko duten dedikazioa (behar den denbora) erraztearekin eta familia formen eta loturen aniztasuna babestu eta babestearekin zuzenean lotutako

³ 8/2006 Legea, uztailaren 5ekoa, Kataluniako herri-administrazioetako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriei buruzkoa.

⁴ Eskuragarri: https://argitalpen.ararteko.eus/index.php?leng=cast&id_l=83&id_a=2739



helburu estrategikoak sartzen ditu. Hartara, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko baimenekin lotutako ekintzak zehazten dira, "*familia eta lana bateratzeko behar bereziak*" dituzten familientzako familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen zenbatekoekin (guraso bakarreko familiak berariaz aipatzen dira), eta guraso bakarreko egoera zehazteko irizpideekin. Arartekoak gai horri buruz behin eta berriz azpimarratu du oso garrantzitsua dela familia horiek eremu horretan izan dezaketen kalteberatasuna kontuan hartzeko.

Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren indarraldia amaitzeaz dagoenez, egiazta daitezke haren ardatz estrategikoetako batzuetan izandako aurrerapenak eta konprometitutako jarduerak bete direla, hala nola Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak bere gain hartutakoa, Euskal Enplegu Publikoaren Legean 16 asteko gurasotasun-baimena esleitzekoa bikoteko kide bakoitzarentzat, edo 2019an kontziliaziorako laguntzak arautzen dituen dekretu bat onartzekoa, guraso bakarreko Gizarte Politiken kasuan, familia eta osasunerako laguntza kualifikatuak jasotzen dituenena. Beste jarduera batzuk, hemen aztertuko ez ditugun arrazoientzat, oraindik ez dira egin.

Edozelan ere, ez dugu ahaztu behar Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana asmo handiagoko akordio hori epe laburrean hedatzea baino ez dela, hau da, Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna, datozen urteetan bide horretatik jarraitzeko bidea markatzen duena. Hala, akordioa eragiten duten erronka handietarako bidean urratsak egiten jarraitzea arrazoizkoa ez ezik, espero izatekoa ere bada, orain arte lortutako laguntzak sendotuko eta indartuko dituzten asmo handiagoko proposamenak planteatuta.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean lan egiten duten langileei aitortutako jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adopziorako edo harrerarako zaintzagatiko baimenei dagokienez, guraso bakarra duten familien tratamendua berrikustea, aurreko gogoetetan adierazitako parametroetara egokitzeko.

